








PERTSONEN OSASUNA HELBURU



Eusko Jaurlaritzak, gizarte-politikan duen konpromisoari esker, dirulaguntzak ematen ditu koordinketa farmazeutikorako, indarrean jarri zenetik 2013ko uztailean, Euskadin beharrezko duen inork osasun-tratamendua ez uzteko eta pertsona horren osasuna eta populazioarena bermatzeko aldi berean.

NORK ESKA DITZAKE?

> **Gizarte Segurantzako pentsiodunek** (eta bere onuradunek), baldin eta 18.000 € baino gutxiagoko urteko errentak badauzkate eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-txartela badaukate (OTI).

> **MUFACE, MUGEJU edo ISFASeko pentsiodunek** (eta bere onuradunek), baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik badaude eta 18.000 € baino gutxiago sarrerak badituzte.

> **Legezko langabezia-egoeran daudenek** (eta bere onuradunek), baldin eta Euskadin erroldaturik badaude eta 18.000 € baino gutxiagoko sarrerak badituzte.

> **Beren laneko errentak osatzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen badute** (eta bere onuradunek) eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-txartela badaukate (OTI).

> **Espainiako Estatuan erregistratu gabe edo egoiliar gisa baimendu gabe dauden atzerritarrak** Euskal Autonomia Erkidegoak eskubide hori aitortzeko emandako egiaztatzea badute.

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.euskadi.eus



ESKABIDEAK

Eskabidea egiteko, inprimaki bat bete eta aurkeztu behar da. Honako lekuetan aurki daitezke:

- > Osakidetza **osasun-etxeetan edo anbulatorioetan**.
- > Osasun Sailaren **lurralde-ordezkaritzetan**: Gasteizen, Bilbon eta Donostian.
- > **Zuzenean** zerbitzuko arreta-guneetan.
- > **Eusko Jaurlaritzako web** orrian:

www.euskadi.eus

- > Osakidetza **web** orrian:

www.osakidetza.euskadi.eus

Euskadin egindako gastu farmazeutikoak badira, eskabide eredu erraztua aurkeztuko da eta honako hauek zehaztuko dira:

- > Datu pertsonalak.
- > Bankuko kontu-zenbakia.

Euskaditik kanpo egindako gastu farmazeutikoak badira, bai eta **mutualitateetako pentsiodunak** ere, ohiko eskabide-eredua aurkeztu behar da eta honako hauek erantsi:

- > Erosketa-tiketak.
- > Tratamendu-orriak edo sendagai-errezetak.
- > Laguntza jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentua (Mutualitateetako eskatzaileek soilik)



ESKABIDEA EGITEKO

EPEAK ETA ORDAINKETAK

Eskabide erraztua urtean behin baino ez da aurkeztu behar. Eskabide ohikoa urtean bi aldiz aurkeztu ahal izango da, gehienez ere.

Eskabideak aurkezteko epea abenduaren 10era arte egongo da zabalik urtero.

Eskaera erraztua ekainaren 10a baino lehen aurkeztu bada (egun hori bame), laguntza bi ordainketatan kobratuko da. Data horren ondoren aurkeztu bada, ordainketa bakarrean kobratuko da, eskabideak aurkezteko epea abenduan amaitu ondoren.

Nolanahi ere, **ordainketa banku-transferentzia bidez egongo da, eskabidean adierazitako kontu-zenbakian.**